

2022KO ABENDUAREN 23AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita hirua

HILABETEA: Abendua.

URTEA: Bi mila eta hogeita bi.

HASIERAKO ORDUA: Eguerdiko ordubatak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUAK: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTA. Aurreko Aktaren onespena. 2022-12-01.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da 2022-12-01eko akta.

2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- OBRAK KONTRATATZEA: Beasaingo udal hilerriko nitxoak eraberritzea. Lizitazio espediente onartzea eta kontrataziorako deialdi publikoa egitea. 2022PROB0008

Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: aipatutako lizitazioa egitea deialdia publikoa eginez, baldintza administratibo eta teknikoa onartuz:

1.- *Prozedura:* irekia eta sinplifikatua publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 216.336,89 € + BEZ

4.- *Egikaritze epea:* 12 aste.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*

- Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 324.505,33 € gutxienez.

6.- *Kaudimen teknikoa:*

Titulu akademikoak eta profesionalak, eta, bereziki, kontratua gauzatzeko arduradunarenak edo arduradunenak, bai eta zuzenean horretaz arduratzen diren teknikarienak ere:

Obra burua: Arkitektoa, arkitekto teknikoa, eraikuntzako ingeniari teknikoa edo goi mailako ingeniaria. %40etik gorako dedikazioa.

Obraren arduraduna: Titulazio jakinik gabea. %100eko dedikazioa.

7.- *Aurkezteko epea, ordua eta lekua:* Hogeia egun naturalak, 23,55arte. Lizitazio elektronikoa.

8.- *Adjudikazio irizpideak:*

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (25 puntu)

- Obrako sarbide eta irteeren, okupatutako azalaren eta biltegiartzeko eremuen azterketa eta zehazpena (9 puntu).
- Obrarako sarbideak, obrak hartzen dituen azalerak eta materialak biltzeko aurreikusitako eremuak aztertu eta definitu beharko dira. Proposamenaren egokitasuna, argitasuna eta definizio-maila, kontuan hartutakoak eta planteatutako proposamenaren bideragarritasuna baloratuko dira, obraren ezaugarrien eta berezitasunen arabera.
- Fitxategi bat aurkeztuko da PDF formatuan (E 1/200) eta DWG formatuan. Obran esku hartzen duten elementu guztiak grafiatu beharko dira: sarbideak, hesiak, etxolen kokapena, metaketa-eremuak, etab.
- A4 formatuko orri bat aurkeztuko da bi aldeetatik, Arial 10 letrarekin, kontzeptu horiek azalduz.
- Obra lanen plangintza eta antolaketa (9 puntu).
- Proposamenaren egokitasuna eta obraren plangintzaren eta antolaketaren justifikazioa baloratuko dira.
- Asteka banakatutako PDF fitxategi bat aurkeztuko da, proposatutako plangintza zehaztuz eta obrako ataza bakoitza definituz, bai eta horren zeregin kritikoak ere.
- Obraren plangintza ekonomikoa aurkeztuko da hilabetetan eta ehunekoetan, lizitazio-prezioa oinarritzat hartuta.
- A4 formatuko orri bat aurkeztuko da bi aldeetatik, Arial 10 letrarekin, kontzeptu horiek azalduz.
- Obra lanak sor ditzaketen afekzioen azterketa eta hauek mugatzeko hartu beharreko neurrien proposamenak (7 puntu).
- Obrak eragindako kalteen azterketa egin beharko da, esparruaren irakaskuntza-erabilerari edo beste edozein eratako erabilerari erreparatuta, eta horiek aldatzeko neurri zuzentzaileak, antolamendukoak eta planifikaziokoak aurkeztu beharko dira.
- Antzemandako eraginen norainokoa eta garrantzia baloratuko dira, baita aurkeztutako neurri zuzentzaileena ere.

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (75 puntu)

- Eskaintza ekonomikoa. 59 puntu.

Atal hau ebaluatzeko, Zerbitzu Teknikoek alde aurretik homogeneousatuko dituzte, beharrezkotzat jotzen badute, aurkeztutako eskaintzak.

Puntuazioa ezartzeko, honela banatuko da:

0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarritzeko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

$B_{max} \leq 50\% \gg P = 200 \times B$

$B_{max} > 50\% \gg P = 100 \times B / B_{max}$

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.

B: Baxa = 1 - (Eskaintzako prezioa) / (Lizitazioaren gehieneko aurrekontua).

B_{max}: Onartutako gehieneko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

- Agirian ezarritako berme epea baino luzeagoa eskaintzea: 16 puntu

Modu honetan balioztatuko da:

Agirian ezarritako berme epea baino luzeago bat aurkezten duen eskaintzaileak, hau da, urtebetetik gorako berme epea, 2 puntu eskuratuko ditu gehiegizko urte bakoitzeko, gehienez ere 16 puntura iritsi arte.

(Gehieneko puntuazioa lortuko da eskaintzaileak 9 urteko berme-epea eskaintzen duenean, pleguari dagokiona gehi eskaintako bermearen 8). Berme-epe gisa pleguan ezarritakoa aurkezten duen eskaintzak (urte 1) zero puntu lortuko ditu.

9.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- *Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa:*

Kontratua egikaritzeko langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz eta enpresa kontratistak edo azpikontrastak emakumeen ordezkaritza ez orekatua balu langileen artean, kontratua egikaritzeko eta egikaritze epe osoan zehar, gutxienez ere, emakume bat kontratatu beharko du langile berri moduan edo, gutxienez ere, aldi baterako kontratatutako emakume bati kontratu mugagabea egin beharko dio. Langile multzoa ez orekatua dela ulertuko da emakumeak guztizko langileen %40ra iristen ez direnean.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Nerea Manzisidor Mendizabal andreak adierazi du beraiek beste batzuetan esan bezala, ez daudela ados eskaintza ekonomikoari ematen zaion balioarekin.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- OBRA ZIURTAGIRIAK:

- IXABEL OLANO PARKEAREN ETA KAROBI KALEAREN BIRGAITZEKO OBRAK. 2. ZIURTAGIRIA. 2022OBMA0015

Aho batez ondorengo obra-ziurtagiria (bigarrenkoa) onartu da: Ixabel Olano parkearen eta karobi kalearen birgaitzeko obrei dagokiena: 37.407,53 €koa (BEZ barne).

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan atalean honelakoak aurkeztu dira:

JOSE MIGUEL ITURRIOZ KALEKO OBRAK

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), obra hauen inguruan egindako bileraren eta bertan bizilagun batzuk kexak aurkeztu izanaren berri izan duela adierazi du.

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV) ihardetsi du esanez kexak baino bizilagunen aldetik zalantzak azaldu zirela eta bileran jakinarazi zitzaizela obrek afektatu ditzaketan J. M. Iturriotz eta Joan XXIII kaleetako eraikinei, lanekin hasi baino lehen ikuskapena egingo zaiela.

Alkateak adierazi du jakin ostean urbanizazio obrak horiek nork egin behar dituzten, kartelak jarriko direla eta Udala gainean egongo dela obrekin hasi baino lehen ikuskapen horiek egiteko.

ERREALA FUTBOL TALDEAREKIN HITZARMENA

Alkate andreak, Nerea Manzisidor Mendizabal andreak gai horren inguruan aipamena egin ondoren, ezagutzera eman du oraindik hitzarmena ez dela sinatu, baina Errealak konpromiso tinkoa azaldu duela sinatzeko eta diruz laguntzeko lgartza futbol zelaian egindako obrak.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera eguerdiko ordubietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.